# I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
# Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Kultura Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 79/2010 FORU DEKRETUA, ekainaren 1ekoa. Foru dekretu horren bidez, arauak ematen dira Bizkaiko Lurralde Historikoko kultur elkarteek, kultur elkarteen federazioek eta kultur fundazio pribatuek 2010eko ekitaldian euren funtzionamendurako eta kudeaketa-tresnen hobekuntzarako egiten dituzten gastuak zati batean finantzatzeko foru diru-laguntzen deialdia arautzeko (Sendotu Programa).**

Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, bere 7.a.13) artikuluan, eskumen esklusiboa ematen die lurralde historikoei hurrengo arloetan, besteak beste: «Lurralde Historikoaren interesekoak diren kultur erakundeak sortu eta mantentzea». Eskumen hori betearazteko, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen barruan, kultura disciplina guztietan bultzatu, sustatu eta hedatzeko helburua duten jardutelerro batzuk dauzka abian.

Zehazki, eta herri administrazio guztiei onartutako kultura sustatzeko eskumena garatzeko, Foru Erakunde honek hainbat dirulaguntza ildo ditu, Bizkaiko elkarte, enpresa eta toki erakundeei laguntza emateko beraien kultur jarduera gara dezaten. Horrez gain, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide jurídico orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko Hitzaurrean eta ezarri beharreko gainerako arautegian jasotakoaren arabera, lurralde historikoek, bere eskumenak garatu eta betetzeko, araugintza-ahalmen autonomoa duteneko ekonomia- eta finantza-eremuari dagokio diru-laguntzen gai hau, Ekonomia Itunaren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrela definitutako esparruan, Kulturako Foru Sailaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa du, bere eskumenen barruan, Bizkaiko Lurralde Historikoko kultur elkarteen sarea indartzeko. Horretarako, foru sail honek hainbat jarduera egin ditu. Jarduera horiek, aholkularitza eta lankidetzaren arlokoak izateaz gain, laguntza ekonomiko handia ekarri diete elkarte horiei, sustatzen dituzten kultur jarduerak antolatu eta garatzeko. Hala ere, lankidetza hori sendotzeko, gaur egungo errealitateak beste mekanismo batzuk ezartzera behartzen gaitu, kudeaketan eraginkortasun handiagoa lortzen lagunduko digutenak. Beraz, beste laguntza-ildo bat zabaldu nahi dugu, elkarte hauek kultur eragile gisa egiten duten lana benetan hobetzeko.

Ildo horretan, foru dekretu honek behar diren baliabideak eskaini eta arautu nahi ditu, Bizkaiko Lurralde Historikoko kultur elkarte, kultur elkarteen federazio eta kultur fundazio pribatuek euren funtzionamendurako eta kudeaketa-tresnen hobekuntzarako egiten dituzten gastuen zati bat finantzatzeko.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17, 39.k) eta 64.3. artikuluek xedatutakoa ikusita, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu duen maiat-

### Departamento de Cultura

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia, 79/2010, de 1 de junio, por el que se regula la convocatoria pública de subvenciones forales destinadas a financiar parcialmente los gastos de funcionamiento y mejora de los instrumentos de gestión de las Asociaciones Culturales, las Federaciones de Asociaciones Culturales y las Fundaciones Culturales Privadas del Territorio Histórico de Bizkaia durante el ejercicio de 2010 (Programa Sendotu).**

La Ley vasca 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos, en su artículo 7.a.13), competencia exclusiva entre otras, en las siguientes materias: «Creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del Territorio Histórico». En aras a hacer efectiva la misma, la Diputación Foral de Bizkaia tiene en marcha diversas líneas de actuación, tendentes, en su propio ámbito competencial, al fomento, la promoción, y difusión de la cultura en sus distintas disciplinas.

Concretamente, y en desarrollo de la competencia de fomento reconocida a todas las administraciones públicas, esta Institución Foral cuenta con varias líneas de subvención dirigidas a apoyar a asociaciones, empresas y otras entidades locales de Bizkaia en el desarrollo de su actividad cultural propia. Además, y tal y como recoge en su Preámbulo la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y demás normativa de aplicación, esta materia subvencional se encuentra incluida en el ámbito económico financiero en el que los Territorios Históricos tienen capacidad de regulación autónoma para el desarrollo y ejecución de sus competencias de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 48 del Concierto Económico.

En el marco así definido, la Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento Foral de Cultura, tiene contraído el compromiso, en su ámbito competencial, de fortalecer el tejido asociativo cultural de nuestro Territorio Histórico. Con tal fin, este Departamento Foral viene realizando actuaciones diversas, que tienen su reflejo no sólo en el ámbito del asesoramiento y la cooperación, sino que se traducen igualmente en un importante apoyo económico en lo que supone la organización y desarrollo de las actividades culturales promovidas por dichos agentes. Sin embargo, y en aras a reforzar esta colaboración, la realidad actual impone implementar mecanismos que permitan alcanzar un mayor grado de eficacia en la gestión. Se trata, por tanto, de abrir una nueva vía de ayudas que incidan de manera decidida en una mejora de la labor que estas entidades desarrollan en su condición de agentes culturales.

En esta línea, el presente decreto foral pretende ofrecer y arbitrar los medios precisos para financiar parcialmente los gastos de funcionamiento y mejora de los instrumentos de gestión de las asociaciones culturales, federaciones de asociaciones culturales, y fundaciones culturales privadas que operan en el Territorio Histórico de Bizkaia.

En virtud de lo expuesto y vistos los artículos 17, 39.k) y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se

cve: BAO-BOB-2010a110

zaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, diru-laguntzen araudia onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak (lehen aipatutako maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena) eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen uztailaren 26ko 132/2006 Foru Dekretuak emandako ahalmenak erabiliz, Kultura Saileko foru diputatu andre txit argiak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2010eko ekainaren 1eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

**1. artikulua.—*Xedea***

1. Foru dekretu honen xedea da deialdi baten arauak ematea Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza fiskala eta soziala duten kultur elkarteek, kultur elkarteen federazioek eta kultur fundazioa pribatuek euren funtzionamendurako eta kudeaketa-tresnen hobekuntzarako egiten dituzten gastuen zati bat finantzatzeko. Erakunde horiek udalez gaindiko programak egin behar dituzte kultura sustatu eta zabaltzeko. Horri dagokionez, honako hauek jotzen dira udalez gaindiko programatzat: udalaren zabalkundea gainditzen dutenak.

Diru-laguntza horiek emateko, norgehiagoka sistema baliatuko da, eta, horretarako, epaimahai kalifikatzaile bat eratu. Epaimahai horrek aurkeztutako eskabideak alderatuko ditu, eta, 5. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, lehentasun-ordena ezarri, eta proposamena egingo du, diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko. Dena dela, eskabide horiek foru dekretu honetako 5. artikuluan ezarritako gutxieneko puntu kopurua gainditu behar dute beti.

2. Diruz lagundutako gastua 2010eko ekitaldian gauzatu behar da.

3. Honako jarduera hauek lagundu ahalko dira diruz:

a) Langile-gastuak: Erakundean zerbitzuak ematen dituzten langileen ondoriozko gastuak dira; langile horiek egun indarrean dagoen lan arloko legeriak ezarritakoaren araberako lan kontratua izan behar dute. Araudi honetatik kanpo geratzen dira erakunde eskatzaileek kultur jarduera eta proiektuak garatzeko behar dituzten kanpoko zerbitzuak kontratatzearen ondorioz sortutako gastuak, eta, beraz, ez dute diru-laguntzarik jasoko.

b) Erakundearen gastu arrunta: Puntu honetan sartzen dira erakundearen egoitza sozialaren errentamendua, garbiketa, argia, telefonoa, komunikazioak, aseguruak eta kanpoko auditoria zerbitzuak direla-eta sortutako gastuak.

c) Erakundearen promozio publikoa egiteko gastua (propaganda eta publizitatea), baldin eta promozio hori kultur proiektu konkretu bati lotuta ez badago.

d) Erakunde eskatzailearen egoitza soziala izango den higiezin bat eskuratzeak sortzen dituen gastuak (interesak, bankuko gastuak eta kredituak eragindako komisioak; kanpoan geratzen dira kreditu hori amortizatzeko erabilitako kopuruak).

e) Erakunde eskatzaileen kudeaketa hobetzea dakarten proiektuak sortu eta garatzeko gastuak. Zehazkiago esanda, honako jarduera hauetatik eratorritakoak:

— Kultur arloan plan estrategikoak prestatzea.

— Kudeaketa bideratu eta hobetzeko beste tresna batzuk prestatzea; besteak beste, honako hauek:

• Kultur ikuskizunetan bildutako jende kopuruari buruzko azterlanak.

• Antolakuntzari buruzko hausnarketa estrategikoak.

• Kudeaketa planak.

• Plan zuzentzaileak eta bideragarritasun planak.

• Marketing eta komunikazio orokorreko planak.

• Publikoari buruzko azterlanak eta kultur arloko diagnostikoak.

regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto regula el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, y por el decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 132/2006, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura, a propuesta de la Ilma. Sra. diputada foral titular del Departamento de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 1 de junio del año 2010,

SE DISPONE:

**Artículo 1.—*Objeto***

1. Constituye el objeto del presente decreto foral regular la convocatoria pública de subvenciones forales destinadas a financiar parcialmente los gastos de funcionamiento y mejora de los instrumentos de gestión de las Asociaciones Culturales, Federaciones de Asociaciones Culturales y Fundaciones Culturales Privadas, con domicilio fiscal y social en el Territorio Histórico de Bizkaia, que desarrollen programas de promoción y difusión cultural de carácter supramunicipal, entendiendo por supramunicipal aquellas actividades que superen el marco de difusión municipal.

La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 5, y elevará propuesta de adjudicación de las subvenciones forales a aquéllas que hayan obtenido una mayor puntuación, siempre que se supere el mínimo señalado en el artículo 5 del presente decreto foral.

2. El gasto susceptible de ser subvencionado deberá ejecutarse durante el ejercicio de 2010.

3. Serán objeto de subvención:

a) Gastos de personal: Deberán hacer referencia a los derivados del personal que presta sus servicios en la entidad y que cuenta con contrato laboral suscrito de conformidad con la legislación laboral vigente. Quedan fuera del ámbito de aplicación de la presente normativa, y por tanto, no serán subvencionables, los gastos de personal originados por la contratación de servicios exteriores necesarios para el desarrollo de las actividades o proyectos culturales de la entidad solicitante.

b) Gasto corriente de la entidad: En este punto se incluyen, los gastos derivados de arrendamiento del local que constituya la sede social de la misma, limpieza, luz, teléfono, comunicaciones, seguros, servicios externos de auditoría.

c) Gastos de promoción pública de la entidad (publicidad y propaganda), que no estén relacionados con ningún proyecto cultural concreto.

d) Gastos financieros derivados de la adquisición de un inmueble para sede social de la entidad solicitante (intereses, gastos bancarios y comisiones derivadas del crédito, quedando excluidas las cantidades dedicadas a la amortización de dicho crédito).

e) Gasto que ocasiona la confección y desarrollo de proyectos que induzcan a la mejora de la gestión de las entidades solicitantes, y concretamente, los derivados de:

— La elaboración de planes estratégicos en materia cultural.

— La elaboración de otros instrumentos de orientación y mejora de la gestión, entre otros:

• Estudios de asistencia de público a espectáculos culturales.

• Reflexiones estratégicas organizativas.

• Planes de gestión.

• Planes directores y de viabilidad.

• Planes de marketing y de comunicación global.

• Estudios de públicos y diagnósticos culturales.

cve: BAO-BOB-2010a110

Eskatzaileek diru-laguntza jasoko duten arloko profesional edo enpresa espezializatuen laguntza eta aholkularitza izan behar dute, kultur arloan plan estrategikoak prestatzeko zein kudeaketa bideratu eta hobetzeko beste tresna batzuk prestatzeko. Hori behar bezala frogatu behar da, Dokumentazioa izeneko 3. artikuluan agertzen diren agiriak aurkeztuz.

4. Foru dekretu honen helburua eskatzaileen ekintza bultzatu eta osatzea izango da, eta ez da inoiz izango kudeaketa egiturak mantendu eta hobetzeko gastu guztiak finantzatzea.

5. Honako gastu hauek foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira:

a) Higiezinetan eginiko inbertsioak, higiezin horien erabilera dena delakoa izanik ere, baita erakundearen egoitza soziala bada ere. Hala ere, salbuespena dira artikulu honetako 3 d) atalean jasotako gastuak.

b) Erakundeak jabetzan, errentamenduan, erabiltzeko eskubidean edo beste edozein titulu dela bide gozamenean dituen instalazioak hobetu edo konpontzeko lanak.

c) Inbertsioak: informatikako, ikus-entzunezko eta beste edozein eratako ekipamenduak.

d) Erakunde eskatzaileek egiten dituzten udalez gaindiko kultur proiektuei zuzenean lotutako gastuak, proiektu horietarako bakarrik direnak (langileentzat, errentamenduetarako, kanpoko zerbitzuak kontratatzeko…).

**2. artikulua.—*Subjektuak***

1. Honako hauek izan ahalko dute foru dekretu honek arautako diru-laguntzen subjektu: Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza fiskala eta soziala duten kultur elkarteak, kultur elkarteen federazioak eta kultur fundazioa pribatuak, baldin eta udalez gaindiko kultur proiektuak egiten badituzte. Horretarako, honako hauek jotzen dira udalez gaindiko programatzat: udalaren zabalkundea gainditzen dutenak.

Horrez gain, diru-laguntza jaso ahal izateko, eskatzaileek egiaztatu egin behar dute gutxienez honako baldintza bi hauetako bat betetzen dutela:

a) Erakundearen egoitza sozialerako soilik erabiltzen den lokal bat edukitzea (beste erakunde batekin edo batzuekin partekatzen ez dutena) bai jabetzan, errentamenduan edo beste edozein titulu juridikoren bidez.

b) Eskabidea aurkezten duten egunean, gutxienez langile bat edukitzea erakunderan zerbitzu ematen, eta langile hori lan arloan indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera kontratatua egotea.

2. Foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo daude honako hauek:

a) Kirolaren, gazteen eta aisia eta astialdiaren arloko elkarte, federazio eta fundazioak.

b) Helburua gizarte (emakume, adinezko edo haurrentzako erakundeak), osasun edo ingurumenaren arlokoa duten erakundeak.

c) Auzokideen elkarteak.

d) Gurasoen elkarteak (GE).

e) Sindikatuen eta enpresen elkarteak.

f) Toki eta/edo landa garapenerako elkarteak.

g) Nagusiki kultur izaera ez duten elkarteak.

h) Patronatuko kideetako bat erakunde publikoa duten kultur fundazio pribatuak.

i) Bizkaiko Foru Aldundiak bazkide edo patronatuko kide gisa parte hartzen duen erakundeak, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2010eko ekitaldirako aurrekontu orokorrei buruzko foru arauan (abenduaren 23ko 3/2009 Foru Araua) izendatutako diru-laguntza jasotzen duten erakundeak.

Tanto en el supuesto de elaboración de planes estratégicos en materia cultural, como tratándose de la elaboración de otros instrumentos de orientación y mejora de la gestión, los/as solicitantes deberán contar con el apoyo y asesoramiento de profesionales o empresas especializadas en las materias objeto de subvención. Dicho extremo deberá quedar debidamente acreditado con la presentación de la documentación que se relaciona en el artículo 3. Documentación.

4. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de los solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos de mantenimiento y mejora de las estructuras de gestión.

5. Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral los gastos que se relacionan a continuación:

a) Inversión en inmuebles, cualquiera que sea el fin al que éstos se destinen, incluido el servir de sede social a la entidad, a excepción de los gastos comprendidos en el apartado 3 d) del presente artículo.

b) Obras de mejora y reparación de instalaciones propias, arrendadas o sobre las que la entidad ostente el derecho de uso y disfrute por cualquier otro título.

c) Inversiones: Equipos informáticos, audiovisuales y de cualquier otro tipo.

d) Gastos directa y exclusivamente vinculados a los proyectos culturales de carácter supramunicipal que desarrollan las entidades solicitantes (personal, arrendamientos, contratación de servicios exteriores, etc.).

**Artículo 2.—*Sujetos***

1. Podrán ser sujetos de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral las Asociaciones Culturales, las Federaciones de Asociaciones Culturales y las Fundaciones Culturales Privadas, con domicilio fiscal y social en el Territorio Histórico de Bizkaia, que desarrollen proyectos culturales de dimensión supramunicipal, entendiendo por supramunicipal aquellas actividades que superen el marco de difusión municipal.

Asimismo, y para poder acceder a la subvención, las entidades solicitantes deberán acreditar el cumplimiento de una, al menos, de estas dos condiciones:

a) Disponer de local destinado únicamente a sede social de la entidad, no compartido con otra u otras entidades, bien sea éste propiedad del solicitante o disponga del mismo en régimen de arrendamiento o en virtud de cualquier otro título jurídico.

b) A la fecha de presentación de la solicitud, contar con personal que preste sus servicios en la entidad, en número, al menos, de uno/a, contratado/a con arreglo a lo que establece la legalidad vigente en materia laboral.

2. Quedan excluidas del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Las Asociaciones, Federaciones y Fundaciones deportivas, juveniles y de ocio y tiempo libre.

b) Las entidades cuyo objeto haga referencia al ámbito social (mujer, tercera edad, infancia), sanitario o medio ambiental.

c) Las Asociaciones de Vecinos.

d) Las asociaciones de padres de alumnos (APAS).

e) Las Asociaciones sindicales y empresariales.

f) Las Asociaciones de desarrollo local y/o rural.

g) Las Asociaciones que no tengan un carácter predominantemente cultural.

h) Fundaciones Culturales Privadas uno de cuyos patronos sea una institución pública.

i) Aquellas entidades en las que participe la Diputación Foral de Bizkaia en calidad de socio o patrono, así como aquellas que reciban una subvención consignada como nominativa en la Norma Foral 3/2009, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2010.

cve: BAO-BOB-2010a110

**3. artikulua.—*Agiriak***

Diru-laguntzetarako eskabideak foru dekretu honi I. eranskin legez batu zaion eskaera-orri ofizialean aurkeztuko dira (behar bezala beteta), honako agiri hauekin batera:

a) Erakunde eskatzaileak aurrez ikusten dituen urteko dirusarreren eta gastu guztien zerrenda zehatza (egitura gastuak eta kultur programazioaren gastuak); II. eranskineko ereduaren arabera aurkeztuko da zerrenda hori.

b) Eskabidea sinatu duen pertsonaren nortasun agiri nazionalaren (NAN) fotokopia.

c) Erakundearen estatutuak.

d) Baldin erakunde eskatzaileak bere egoitza soziala izateko eta beste ezertarako erabiltzen ez duen lokal bat jabetzan, errentamenduan edo beste edozein titulu bidez badauka, eta ez badu beste erakunde batekin edo batzuekin erabiltzen, lokal horren gainean duen eskubidea egiaztatzen duen agiria.

e) Erakundeko idazkariak egin, eta presidenteak ontzat emaniko ziurtagiria, diru-laguntza eskatzen den egunean erakundean diren langileen zerrenda (lan kategoria eta kontratu mota adierazita) jasotzen duena.

f) Kultur arloan plan estrategikoak prestatzeko zein kultur erakundeen jarduera bideratu eta hobeto kudeatzeko beste tresna batzuk prestatzeko gastuak direnez, erantsi beharko dira proiektuaren proposamena (proiektua garatzeko metodologia barne) eta aurrekontua, bai eta proiektua egiteaz arduratu diren enpresa eta/edo langileen historia laburra ere.

g) Erakundeko idazkariak egin, eta presidenteak ontzat emaniko ziurtagiria, diru-laguntza eskatzen den egunean erakundeak zenbat bazkide dituen adierazten duena.

h) Kultur elkarteen federazioen kasuan, erakundeko idazkariak egin, eta presidenteak ontzat emaniko ziurtagiria, diru-laguntza eskatzen den egunean erakundea zein talde edo elkartek osatzen duten adierazten duena.

i) Kultur fundazio pribatuen kasuan, erakundeko idazkariak egin, eta presidenteak ontzat emaniko ziurtagiria, erakunde pribatuetatik jasotako ekarpenak adierazten dituena.

**4. artikulua.—*Eskabideak eta epeak***

1. Eskabideak Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu behar dira (Bilbo, Rekalde zumarkalea 30, 2. solairua), astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13,30era; edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/99 Legearen 38.4 artikuluak ezarritako eran.

Erakundearen presidenteak edo idazkariak sinatuko du eskabidea.

2. Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunetik aurrera aurkeztu ahalko dira eskabideak. Horretarako, 2010eko ekainaren 30era arte (asteazkena) izango da epea, egun bi horiek barne hartuta. Eskabideak behar bezala beteta ez daudenean edo foru dekretu honek eskatutako agirietakoren bat falta dutenean, erakunde interesdunari eskatuko zaio hamar (10) egun balioduneko epean akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko dela. Ondorioz, eskabidea artxibatu egingo da, aurretik dagokion ebazpena emanda.

3. Beharrezkotzat jotzen denean, Kultur Ekintzako Zerbitzuak egoki deritzon dokumentazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei, aurkeztutako eskabideak ebatzi ahal izateko. Agindeia jaso duen eskatzaileak ez baditu agiri horiek ezarritako epearen barruan aurkezten, eskabideari uko egin diola ulertuko da, eta, ondorioz, eskabidea artxibatu egingo da, aldez aurretik dagokion ebazpena emanda.

**Artículo 3.—*Documentación***

Las solicitudes de subvención se presentarán en la instancia oficial que figura como Anexo I debidamente cumplimentada del presente decreto foral junto con la documentación que a continuación se señala:

a) Una relación detallada de los ingresos y gastos anuales totales previstos (gastos de estructura más gastos de programación cultural) de la entidad solicitante, que habrá de presentarse conforme al modelo del anexo II.

b) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad (D.N.I.) de la persona firmante de la solicitud.

c) Estatutos de la entidad.

d) Si la entidad solicitante dispusiera de local destinado únicamente a sede social de la entidad, no compartido con otra u otras entidades, bien sea éste de su propiedad o disponga del mismo en régimen de arrendamiento o en virtud de cualquier otro título, documento que acredite su derecho sobre el mismo.

e) Certificado del/a secretario/a de la entidad con el visto bueno del/a Presidente/a en el que se haga constar una relación de los/as trabajadores/as de la misma, su categoría profesional y tipo de contrato a la fecha de solicitud de la subvención.

f) Tratándose de gastos derivados de la elaboración de planes estratégicos en materia cultural, así como de otros instrumentos de orientación y mejora de la gestión en organizaciones culturales, deberá acompañarse la propuesta del proyecto (incluida la metodología de desarrollo del mismo) y presupuesto, juntamente con un breve historial de la empresa y/o de las personas profesionales a las que se ha encargado la realización del mismo.

g) Certificado del/a secretario/a de la entidad, con el visto bueno del/a Presidente/a en el que se haga constar el número de socios/as de la entidad a fecha de solicitud de la subvención.

h) En el caso de Federaciones de Asociaciones Culturales certificado del/a secretario/a de la entidad, con el visto bueno del/a Presidente/a en el que se haga constar el número de grupos o entidades que las integran a fecha de solicitud de la subvención.

i) En el caso de las Fundaciones Culturales Privadas, certificado del/a secretario/a de la entidad, con el visto bueno del/a Presidente/a en el que se hagan constar las aportaciones provenientes de entidades privadas.

**Artículo 4.—*Solicitudes y plazos***

1. Las solicitudes se podrán presentar en las oficinas del Servicio de Acción Cultural sitas en la calle Alameda de Rekalde, número 30-2.º de Bilbao (de lunes a viernes de 8:30 a 13:30 horas), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 4/99, de 13 de enero, que modifica la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La solicitud irá suscrita por el/la Presidente/a o Secretario/a de la entidad.

2. Las solicitudes podrán presentarse desde el día siguiente a la publicación del presente decreto foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia», hasta el día 30 de junio de 2010 (miércoles), ambos inclusive. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la entidad interesada para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

3. En aquellos casos en que se considere necesario, el Servicio de Acción Cultural podrá requerir a los/as peticionarios/as cuanta documentación complementaria estime oportuna para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si el/la peticionario/a requerido/a no presentase la documentación en el plazo que se establezca, se le tendrá por desistido/a de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

cve: BAO-BOB-2010a110

**5. artikulua.—*Irizpideak***

1. Diru-laguntzen eskabideei buruzko ebazpen-proposamenak eman eta kopuruak ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak honako irizpide hauek eta beren haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez ere 100 puntu izango dira, honela ezarrita:

— Kultur elkarteak eta kultur elkarteen federazioak:

a) Funtzionamenduaren gastuak eta kudeaketa tresnak hobetzeko gastuak kontuan hartuta, erakundearen gastuaren guztizko aurrekontuak osatzen duen ehunekoa: 25 puntu, gehienez.

b) Erakundeak funtzionamendurako eta kudeaketa-tresnen hobekuntzarako egiten dituen gastuak kontuan hartuta, erakundearen beraren diru-sarrerek (bazkideen kuotak) osatzen duten ehunekoa: 25 puntu, gehienez.

c) Eskatzaileak kultur arloan egin duen ibilbidea eta kultur proiektuak kudeatzen duen esperientzia: 15 puntu, gehienez.

d) Kultur elkarteen bazkide kopurua, eta, kultur elkarteen federazioen kasuan, horiek osatzen dituzten talde, elkarte eta/edo erakundeena: 15 puntu, gehienez.

e) Kontratatutako pertsonen kopurua: 15 puntu, gehienez.

f) Euskal kultura tradizionala bultzatu, defendatu eta/edo babesten duten proiektuak egiten dituzten erakundeen kasuan: 5 puntu, gehienez.

— Kultur fundazio pribatuak:

a) Funtzionamenduaren gastuak eta kudeaketa tresnak hobetzeko gastuak kontuan hartuta, fundazioaren gastuaren guztizko aurrekontuak osatzen duen ehunekoa: 25 puntu, gehienez.

b) Erakunde pribatuetatik jasotzen dituen ekarpenak kontuan hartuta, fundazioaren diru-sarreren guztizko aurrekontuak osatzen duten ehunekoa: 20 puntu, gehienez.

c) Fundazio eskatzaileak kultur arloan egin duen ibilbidea, eta kultur proiektuak kudeatzen duen esperientzia: 25 puntu, gehienez.

d) Kontratatutako pertsonen kopurua: 25 puntu, gehienez.

e) Euskal kultura tradizionala bultzatu, defendatu eta/edo babesten duten proiektuak egiten dituzten fundazioen kasuan: 5 puntu, gehienez.

Epaimahai kalifikatzailearen ustez gutxieneko 40 puntu lortzen ez duten proiektuetarako eskabideak ez dira kontuan hartuko.

2. Aurkeztutako gastu-aurrekontuaren %50erainokoa izan daiteke diru-laguntza, eta, gehienera jota, 10.000 euro emango dira. Gastu-aurrekontua II. eranskinean proposatutako ereduan ageri den zehaztasunaz aurkeztu behar da, berrikusi eta dagozkion doikuntzak egin ondoren.

**6 artikulua.—*Aholkularitza***

Kultur Ekintzako Zerbitzuak laguntza teknikoa eta behar den aholkularitza eskainiko ditu, foru dekretu honen interpretazioari edo udalez gaindiko kultur proiektuei buruz sortutako edozein zalantza edo kontsulta argitzeko.

**7. artikulua.—*Epaimahai kalifikatzailea***

1. Epaimahai kalifikatzaile bat osatuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko; Kulturako foru diputatu andere txit argiak izendatutako du epaimahai hori, foru agindu bidez.

2. Diru-laguntzak adjudikatzeko irizpideak kontuan hartuta, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

3. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, inte-

**Artículo 5.—*Criterios***

1. Al objeto de elaborar las propuestas de resolución de las solicitudes de subvención y de establecer las cuantías de las mismas, el tribunal calificador tendrá en cuenta los siguientes criterios y su ponderación, que, sobre un máximo de 100 puntos, se establece como se señala a continuación:

— Tratándose de Asociaciones Culturales y Federaciones de Asociaciones Culturales:

a) Porcentaje que sobre el presupuesto total de gasto de la entidad representan los gastos de funcionamiento y mejora de los instrumentos de gestión: Hasta 25 puntos.

b) Porcentaje que sobre los gastos de funcionamiento y mejora de los instrumentos de gestión de la entidad representan los ingresos propios (cuotas de socios): Hasta 25 puntos.

c) Trayectoria del solicitante en el ámbito cultural y experiencia en la gestión de proyectos culturales: Hasta 15 puntos.

d) Número de socios/as de las asociaciones culturales, y en el caso de las Federaciones de Asociaciones Culturales, de grupos, asociaciones y/o entidades integrados/as en las mismas: Hasta 15 puntos.

e) Número de personas contratadas: Hasta 15 puntos.

f) Entidades que realicen proyectos que impliquen impulso, defensa y/o protección de la cultura tradicional vasca: Hasta 5 puntos.

— Tratándose de Fundaciones Culturales Privadas:

a) Porcentaje que sobre el presupuesto total de gasto de la Fundación representan los gastos de funcionamiento y mejora de los instrumentos de gestión: Hasta 25 puntos.

b) Porcentaje que sobre el presupuesto total de ingresos de la Fundación representan las aportaciones procedentes de entidades privadas que recibe la misma: Hasta 20 puntos.

c) Trayectoria de la Fundación solicitante en el ámbito cultural y experiencia en la gestión de proyectos culturales: Hasta 25 puntos.

d) Número de personas contratadas: Hasta 25 puntos.

e) Fundaciones que realicen proyectos que impliquen impulso, defensa y/o protección de la cultura tradicional vasca: Hasta 5 puntos.

Las solicitudes cuyos proyectos no alcancen un mínimo de 40 puntos, a juicio del tribunal calificador, no serán atendidas.

2. El importe máximo de las subvenciones será de hasta el 50% del presupuesto de gastos presentado (que se presentará con el grado de detalle que aparece en el modelo propuesto en el Anexo II una vez revisado y realizados los ajustes correspondientes), con un máximo de 10.000 euros.

**Artículo 6.—*Asesoramiento***

El Servicio de Acción Cultural prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta planteada, referida tanto a la interpretación del presente decreto foral como a los proyectos culturales de carácter supramunicipal.

**Artículo 7.—*Tribunal calificador***

1. Para el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un tribunal calificador cuyos miembros serán designados por la Ilma. Sra. diputada foral de Cultura mediante orden foral.

2. El tribunal calificador, habida cuenta de los criterios para la adjudicación de las subvenciones, presentará la propuesta de resolución a la diputada foral de Cultura, con el fin de que se dicte la resolución definitiva.

3. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones

cve: BAO-BOB-2010a110

resdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

**8. artikulua.—*Ebazpena***

1. Deialdia ebatzi baino lehen, eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko du Kultur Ekintzako Zerbitzuak. Egiaztapenaren ondorioz ikusten bada eskatzaileren batek betebehar horietako bat, edozein, ez duela betetzen, agindeia egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, hori egiten ez badu, bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela.

2. Kulturako foru diputatu andere txit argiak ebatziko ditu eskabideak, epaimahaiaren ebazpen-proposamena ikusita. Horretarako epea bi (2) hilabete izango dira, eskabideak aurkezteko epea amaitu, eta biharamunetik zenbatzen hasita.

3. Epe hori bukatu ondoren eskabideari buruzko ebazpen adierazirik jakinarazi ez bada, eskabide hori ukatutzat joko da; hala ere, geroago, ebazpen adierazia eman ahal izango da.

